

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza- ren aldaketa behin-betiko onartzea

Navarreteko Kontzejuak, 2021eko irailaren 3an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari.

Behin-behineko onarpena ALHAOn argitaratu zen, 2021eko irailaren 24ko ALHAOn (109 zk.). Jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

7/85 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aipatutako ordenantza horren aldaketa oso-osorik argitaratzen da, aurrerantzean indarra izan dezan:

Ordenantzaren Eranskina

Edateko ur horniketagatiko tarifa

Ordainketa urtean behin egingo da (kobrantza bat urtean).

Zerbitzu-kuota 55 euro kontagailua.

Kontsumo-kuota:

250 m³ arte 0,26 euro/ m³

250 m³-tik 500 m³-ra 0,28 euro/ m³

500m³-tik aurrera 0,31 euro/ m³

Saneamenduagatiko tarifa

Tarifa urtekoa izango da (kobrantza bat urtean), ur-kontsumoaren zordunketa berean. Saneamendu-zerbitzua duten kontagailuetarako bakarrik.

Zerbitzu-kuota 17 euro/ kontagailu.

Aipatutako tasak 2022. urtetik aurrera aplikatuko dira.

Navarrete, 2021eko azaroaren 10a

Erregidore-Presidentea
JOSÉ LUIS RESINES LASAGA